



CONSORCIO ESCOLAR KA101 DEL PROGRAMA ERASMUS+
“FORMACIÓN EUROPEA PARA EL PROFESORADO DE ESCUELAS RURALES PAI –
FEPER”

Una vez el Servicio de Idiomas y Enseñanzas Artísticas del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra hizo un análisis de detección de necesidades de formación entre los docentes de las escuelas rurales PAI, y dadas las dificultades de estos centros para solicitar sus propios proyectos, decidió liderar un Consorcio Escolar en el marco de la Acción Clave 1 (Key Action 1, KA1, movilidad del personal por motivos de aprendizaje) del programa Erasmus+. Dicho proyecto pretendía promover la formación del profesorado en el extranjero, como primer paso para la internacionalización de los centros escolares.

Se convocó a los directores y directoras de todas las escuelas rurales PAI, a la que no asistieron todos. De los presentes, finalmente aceptaron seguir adelante los siguientes centros:

- CPEIP San Juan de Lumbier
- CPEIP Santa Bárbara de Monreal
- CPEIP de Añorbe
- CPEIP Virgen de Nieva de Sesma

-Se solicitó la subvención para el proyecto con fecha de 4 de marzo de 2015. El proyecto resultó aprobado con 87 puntos de un total de 100 (calificación “muy bueno”), aunque recortado en el presupuesto. Se concedieron 8 movilidades, 2 docentes por centro escolar, de los cuales:

-2 docentes han participado en una estancia de “observación de buenas prácticas-jobshadowing”: una docente del CPEIP de Añorbe la ha realizado en Malta, y el de Monreal en Finlandia.

-6 docentes han participado en cursos estructurados de formación en Inglaterra, Irlanda y Finlandia.

La duración del proyecto es de 12 meses, desde el 1 de junio de 2015 hasta el 31 de mayo de 2016.

De la subvención máxima concedida, de 17.840€:

- El primer plazo del 80% se cobró antes del inicio del proyecto: 14.272€.
- Queda pendiente el 20%, a la entrega del informe final: 3.568€.

Estos son los objetivos del proyecto:

A CORTO PLAZO

- Permitir la participación del profesorado de las 4 escuelas rurales PAI en actividades de formación y movilidad internacionales.
- Facilitar la gestión del proyecto a los miembros del Consorcio en todas las cuestiones de índole práctica (cumplimentación del formulario, orientación sobre tipos de actividades de movilidad, gestión presupuestaria etc.).

A MEDIO PLAZO

- Promover la participación de las escuelas rurales PAI en proyectos etwinning, Asociaciones Estratégicas KA2, y en estancias profesionales de docencia y de observación de buenas prácticas en centros extranjeros de acogida/destino.
- Fomentar la participación de las escuelas rurales PAI como centros de acogida/destino de docentes extranjeros.
- Mejorar los resultados del alumnado en las evaluaciones nacionales e internacionales (PISA).

A LARGO PLAZO

- Mejorar la carrera y las competencias profesionales del profesorado participante de los centros miembros del Consorcio.
- Fomentar la internacionalización del centro escolar.
- Promover el intercambio de experiencias entre los equipos directivos de los centros miembros del Consorcio y centros de otros países de similares características.
- Fomentar el aprendizaje entre iguales (Peer Learning).

- Fomentar la integración de las escuelas rurales navarras en las redes europeas.

RESUMEN DEL PROYECTO

CONTEXTO DEL PROYECTO

El Departamento de Educación del Gobierno de Navarra ejerce de institución coordinadora del Consorcio Escolar. Una de las apuestas prioritarias de este Departamento es la de la enseñanza y el aprendizaje de lenguas extranjeras, fruto de la cual año tras año se van incrementando los centros plurilingües de Educación Infantil y Primaria y de Secundaria que imparten materias no lingüísticas en una lengua extranjera. Un sector importante de los centros PAI de Educación Primaria está compuesto por escuelas rurales en situación de desventaja por su pequeño tamaño y su situación geográfica, que les dificulta el acceso a los idiomas en comparación con centros urbanos y de mayor tamaño. Debido a su orografía, Navarra presenta una gran dispersión geográfica. El alumnado de dichos lugares está en una evidente situación de desventaja. Con el objeto de garantizar la equidad y la igualdad de oportunidades, el Departamento de Educación considera prioritario que estas escuelas participen en los distintos programas de aprendizaje de lenguas y en el espíritu de internacionalización del sistema educativo navarro. Detectadas las necesidades de formación de su profesorado, a menudo itinerante, y de internacionalización de los centros, y ante los medios escasos con los que cuentan para poder gestionar algunos tipos de programas o proyectos, el Departamento de Educación ha decidido liderar un Consorcio Escolar que pueda facilitar esa formación y toda la gestión que ello conlleva.

NÚMERO Y PERFIL DE LOS PARTICIPANTES

El Consorcio se compone de 4 miembros, todas ellas escuelas rurales que trabajan con el enfoque AICLE. En cada uno de ellos, se está formando a un máximo de 2 docentes. El perfil prioritario de los participantes en las actividades de movilidad es el del personal docente y no docente activamente implicado en el PAI, así como profesorado de inglés o de materias no lingüísticas que en un futuro próximo vaya a formar parte activa del PAI.

DESCRIPCIÓN DE LAS ACTIVIDADES

- Cursos de formación metodológica en AICLE y en ESL para 6 profesores, parte en verano y parte en periodo escolar.
- Observación de buenas prácticas en Malta y Finlandia para 2 docentes.

METODOLOGÍA PARA LLEVAR A CABO EL PROYECTO

La metodología del proyecto es predictiva, permitiendo adecuar el proyecto a las necesidades formativas del centro. Se han establecido las siguientes fases:

1-Inicio y planificación, que consta de: diseño del equipo de gestión de proyecto, creación del plan de proyecto, orientación y preparación de recursos, aprobación del plan final de proyecto y sus participantes.

2-Ejecución y control, que se subdivide en: ejecución del plan de proyecto, seguimiento de proyecto, control de cambios, reporting, modificación del proyecto, aceptación.

3-Cierre de proyecto, con las fases de evaluación del proyecto y cierre y transferencia del conocimiento.

DESCRIPCIÓN DE LOS RESULTADOS Y EL IMPACTO PREVISTO

1. Mejora en la competencia lingüística en inglés del alumnado debido a la mejora de la comunicación oral y de las competencias metodológicas del profesorado participante en las actividades de movilidad.

2. Ampliación del abanico de recursos, conocimientos y estrategias del profesorado.

3. Búsqueda de posibles socios para Asociaciones Estratégicas KA2 y proyectos de hermanamiento etwinning.

4. Transmisión de los valores sociales y culturales europeos del profesorado adquiridos en sus actividades.

BENEFICIOS A LARGO PLAZO

1. Afianzamiento del programa plurilingüe en las escuelas rurales.

2. Mejora de las competencias básicas de cara al objetivo 2020.

3. Posibilidad de encontrar socios en las actividades de movilidad o mediante las herramientas European School Gateway y/o etwinning.



ERASMUS+ PROGRAMAKO KA101 ESKOLA PARTZUERGOA

"FEPER - IIP LANDA ESKOLETAKO IRAKASLEENDAKO EUROPAKO PRESTAKUNTZA"

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak IIP landa eskoletako irakasleen prestakuntza beharrak atzemateko azterlana egin zuen, eta ikastetxe horiek beren proiektuak eskatzeko dituzten zailtasunak ikusirik, eskola partzuergo bat bultzatzea erabaki zuen, Erasmus+ programaren 1. ekintza gakoaren esparruan (1. ekintza gako: Key Action 1, KA1, langileen mugikortasuna ikasketak direla eta). Proiektu horrek irakasleak atzerrian prestatzea bultzatu nahi zuen, ikastetxeak nazioartekotzeko lehenengo urrats gisa.

Bilera baterako deia egin zitzaien IIP landa eskoletako zuzendari guztiei, denak joan ez ziren arren. Bertaratuetatik, ikastetxe hauek erabaki zuten aurrera jarraitzea:

- Irunberriko "San Juan" HLHIP
- Eloko "Santa Bárbara" HLHIP
- Añorbeko HLHIP
- Sesmako "Virgen de Nieva" HLHIP

- Proiekturako diru-laguntza eskatu zen, 2015eko martxoaren 4an. Proiektua onetsi egin zuten, osotara 100 puntutik 87 lortu baitzituen ("oso ona" kalifikazioa), baina aurrekontua murriztuta. 8 mugikortasun eman ziren, ikastetxe bakoitzeko bi, honela banatuta:

- 2 irakaslek jardunbide egokiak behatzeko edo "jobshadowing" egonaldi batean parte hartu dute: Añorbeko HLHIPko irakasle batek Maltan egin du, eta Eloko batek Finlandian.

- 6 irakaslek prestakuntza ikastaro egituratuak egin dituzte Ingalaterran, Irlandan eta Finlandian.

Proiektuak 12 hilabeteko iraupena du, 2015eko ekainaren 1etik 2016ko maiatzaren 31ra.

Emandako diru-laguntza gehienez 17.840 €-koa da; hartatik:

- Lehenengo epea (%80) proiektua hasi aurretik kobratu zen: 14.272 €
- Gainerakoa (%20) azken txostena aurkeztu ondoren kobratuko da: 3.568 €

Hauek dira proiektuaren helburuak:

EPE LABURRERA

- 4 IIP landa eskoletako irakasleei nazioarteko prestakuntza jardueretan eta mugikortasunean parte hartzeko aukera ematea.
- Partzuergoko kide guztiei proiektua kudeatzen laguntzea, kontu praktiko orotan (inprimakia betetzea, mugikortasuneko jarduera motei buruzko orientabidea, aurrekontuen kudeaketa, etab.).

EPE ERTAINERA

- IIP landa eskolen parte-hartzea bultzatzea, etwinning proiektuetan, KA2 elkarte estrategikoetan, eta atzerriko harrerako/destinoko ikastetxeetan eskolak emateko edota jardunbide egokiak behatzeko xedea duten profesionalen egonaldietan.
- IIP landa eskolen parte-hartzea bultzatzea, atzerriko irakasleendako harrerako/destinoko ikastetxe moduan.
- Ikasleen emaitzak hobetzea, Espainia mailako ebaluazioetan zein nazioartekoetan (PISA).

EPE LUZERA

- Partzuergoko kide diren ikastetxeetan, proiektuan parte hartzen duten irakasleen karrera eta lanbide gaitasunak hobetzea.
- Ikastetxeen nazioartekotzea sustatzea.
- Esperientzia trukea bultzatzea, partzuergoko kide diren ikastetxeetako eta antzeko ezaugarriak dituzten beste herrialdeetako ikastetxeetako zuzendaritza taldeen artean.
- Berdinen arteko ikaskuntza ("peer learning") sustatzea.
- Nafarroako landa eskolak Europa mailako sareetan sar daitezen sustatzea.

PROIEKTUAREN LABURPENA

PROIEKTUAREN TESTUINGURUA

Eskola partzuergoa koordinatzen duen erakundea Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua da. Departamentu honen lehentasunezko apustuetako bat atzerriko hizkuntzak irakastea eta ikastea da eta, horren ondorioz, urtetik urtera, gero eta ikastetxe eleanitz gehiago ari dira Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak atzerriko hizkuntza batean ematen.

Lehen Hezkuntzako IIP ikastetxeen sektore zabal bat landa eskolek osatzen dute. Eskola horiek besteak baino egoera ahulagoan daude, beren tamaina txikiagatik eta kokapen geografikoagatik, hiriguneetan edo herri handiagoetan baino oztopo gehiago dituztelako hizkuntzak ikasteko. Nafarroako orografiagatik, herri txikiak oso sakabanatuta daude. Beraz, toki horietako ikasleek desabantaila argia dute. Ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzearren, Hezkuntza Departamentuak uste du lehentasuna dela eskola horiek hizkuntzak ikasteko programa desberdinetan parte hartzea eta, orobat, Nafarroako hezkuntza sistemaren nazioartekotze espirituaren partaide izatea. Eskola horien nazioartekotzeko premiak eta irakasleen prestakuntza beharrak atzeman ondoren, irakasle horiek sarritan ibiltariak izaten direla kontuan izanik, eta programa edo proiektu jakin batzuk kudeatzeko baliabide gutxi dituztela jakinik, Hezkuntza Departamentuak eskola partzuergo bat bultzatzea erabaki du, behar duten prestakuntza eta horrek berekin dakarren kudeaketa lan guztia errazteko.

PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA EZAUGARRIAK

Partzuergoak 4 kide ditu, guztiak ere CLIL ikuspegiarekin lan egiten duten landa eskolak. Eskola bakoitzean, gehienez 2 irakaslek jasotzen dute prestakuntza. Mugikortasun jardueretan parte hartzen dutenek, lehentasunez, ezaugarri hauek dituzte: IIP programan aktiboki inplikaturako langileak (irakasleak zein ez) eta, orobat, epe laburrean IIPn aktiboki parte hartuko duten irakasgai ez linguistikoetako irakasleak edo Ingeleseko irakasleak.

JARDUEREN DESKRIBAPENA

- CLIL eta ESL metodologiaren gaineko prestakuntza ikastaroak 6 irakaslerendako, zati bat udan eta bestea eskola garaian.
- Jardunbide egokien behaketa Maltan eta Finlandian, 2 irakaslerendako.

PROIEKTUA BURUTZEKO METODOLOGIA

Proiektuak metodologia prediktiboa du, alegia, proiektua ikastetxearen prestakuntza beharretara egokitu daiteke. Fase hauek ezarri dira:

1-Hasiera eta plangintza. Honetan datza: proiektuaren kudeaketa taldea diseinatzea, proiekturako plana sortzea, orientatzea eta baliabideak prestatzea, proiekturako azken plana eta parte-hartzaileak onestea.

2-Gauzatzea eta kontrola, atal hauetan banatuta: proiekturako plana gauzatzea, proiektuari jarraipena egitea, aldaketak kontrolatzea, reporting-a, proiektua aldatzea, onestea.

3-Proiektua ixtea, fase hauekin: proiektuaren ebaluazioa eta itxiera, eta ezagutzaren transferentzia.

AURREIKUSITAKO EMAITZEN ETA ERAGINAREN DESKRIBAPENA

1. Ikasleen ingelesezko hizkuntza gaitasuna hobetzea, mugikortasun jardueretan parte hartzen duten irakasleen ahozko komunikazioa eta gaitasun metodologikoak hobetzearen ondorioz.

2. Irakasleen baliabide, ezagutza eta estrategien sorta handitzea.

3. KA2 elkarte estrategikoetarako eta etwinning senidetze proiektuetarako kideak bilatzea.

4. Egindako jardueretan irakasleek eskuratu dituzten europar balio sozial eta kulturalak transmititzea.

EPE LUZERAKO ONURAK

1. Landa eskoletan programa eleanitza sendotzea.

2. Oinarrizko gaitasunak hobetzea, 2020ko helburuari begira.

3. Kideak aurkitzeko aukera, mugikortasun jardueretarako edota European School Gateway eta/edo etwinning proiektuetarako.

Estancia de Observación de Buenas Prácticas (Jobshadowing) de Ana M^a Lozano, docente del CPEIP de Añorbe, en el centro escolar “Chiswick House School” de San Ġwann (Malta):



Estancia de Observación de Buenas Prácticas (Jobshadowing) del docente y director del CPEIP Santa Bárbara de Monreal, Cristóbal Aliaga, en el centro escolar “Hämeenkylä School” de Vantaa (Finlandia):



Curso de formación realizado por Maite Alba, docente del CPEIP Santa Bárbara de Monreal, en Cheltenham (Reino Unido):



Curso de formación realizado por Uxue Martínez, docente del CPEIP San Juan de Lumbier, en Canterbury (Reino Unido):

